



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO IKASLEENTZAT

Araudi Orokorra

- *Kamiseta lehiaketa* -

Gaien Aurkibidea

1	Definizioak	1
1.1	Kamiseta lehiaketa	1
1.2	Antolakuntza	1
1.3	Partaidea	1
2	Partaidetza	1
3	Arauak	1
3.1	Zigorak	1
3.2	Partaideen aukeraketa	1
3.3	Araudi berezia	1
4	Lehiaketa	2
4.1	Lehiaketaren araudia	2
4.2	Epaimahaia	2
4.3	Sariak	2

1 Definizioak

1.1 Kamiseta lehiaketa

Kamiseta lehiaketa Zientzia eta Teknologia Fakultateko (ZTF) txapelketa bat da, Zimatek Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoko ikasleen elkarrekin antolatua.

1.2 Antolakuntza

Lehiaketa antolatu eta arautzen duten pertsonen elkarrekin, hau da, Zimatek.

1.3 Partaidea

Lehiaketan izen eman duen eta antolakuntzak onartu duen pertsona.

2 Partaidetza

- Bakarka bakarrik har daiteke parte.
- Partaideak ZTFko kide izan behar dira: ikasleak, irakasleak edo administrazioko langileak.
- Lehiaketan parte hartzeak araudi guztiaren onarpena dakar.
- Antolakuntzak zimatek@gmail.com helbidean jasotako zalantza guztiak argituko ditu.

Oharra: ikasletzat hartuko dira fakultatean master bat edo gradu/gradu bikoitz bat ikasten hari diren pertsona oro.

3 Arauak

3.1 Zigorrak

Zigorrak antolakuntzak aukeratuko ditu. Adibidez, ohartarazpen bat edo deskalifikazioa izan daitezke.

3.2 Partaideen aukeraketa

Partaidetza baldintzak betetzen dituen pertsona orok eman dezake izena lehiaketan.

Antolakuntzak bozketa hasi aurretik diseinuren bat baztertzeko eskubidea du, horretarako arrazoi onargarriak baditu.

3.3 Araudi berezia

Ezohiko egoeraren bat emango balitz, hurrengo arauak jarraituko lirateke:

- Antolakuntzak lehiaketa eten edo luzatu dezake.
- Araudiak ez jasotako egoeretan, antolakuntzak egin beharrekoa erabakitze eskubidea du.

4 Lehiaketa

4.1 Lehiaketaren araudia

Partaide bakoitzak diseinu bat edo bi bidaliko ditu, hurrengo baldintzak betez:

- Kamisetaren diseinu bektorizatua bidaliko da, kalitate onean. ([Diseinuak modu errazean bektorizatzeko gida.](#))
- Kamisetaren gaia zientziaren edozein arlorekin lotuta egon beharko da.
- AA (adimen artifizial) batek egindako diseinuak bidal daitezke, beti ere antolakuntzari ohartaraziz.
- Diseinuak zimatek@gmail.com helbidera bidaliko dira, izenburu eta deskribapen bat gehituz, eta partaidearen izen-abizenak eta ikasketak esanez.
- Kamisetak izango duen kolorea eta diseinua aurrean edo atzean jarriko den esan behar da, bai eta partaidearen kamiseta neurria ere.
- Antolakuntzak diseinuen beheko eskuinaldean elkartearen ikurra eta aurtengo urtea jarriko ditu.
- Copyrighta edo egile-eskubideak dituzten diseinuak ez dira onartuko.
- Lehiaketara aurkezturiko diseinuak Creative Commons BY lizentziaren barne egongo dira, eta beraz banatu, aldatu eta egokitu daitezke, sortzailea aipatzen den heinean. ([Informazio gehiago hemen.](#))
- Diseinuak bidaltzeko epemuga 2023ko urriak 21 da, ostirala, 23:59etan.
- Ez dira egingo diseinuen estilo edo edukierari buruzko iradokizunik.

Aurreko baldintzetako bat bete ezean, antolakuntzak egokitzat hartzen duen zigorra ezartzeko eskubidea du.

4.2 Epaimahaia

Irabazleak herri bozketaz erabakiko dira. Pertsona bakoitzak behin bakarrik bozka dezake, baina diseinu bat baino gehiago aukeratuz, eta beti ere korreo instituzionala erabiliz.

4.3 Sariak

Bi sari banatuko dira: 100€-ko bat irabazlearentzat eta 50€-koa bigarren postuarentzat.

Horretaz gain, bi ohorezko aipamen banatuko dira, antolakuntzak aukeratutakoak.

Irabazle guztiek haien diseinua duen kamiseta bat jasoko dute dohain.